



# URIBARRI GAMBOAKO URTEGIA

*Urpeko bailara baten memoria*

**UNITATE DIDAKTIKOA**  
**Irakasleentzako materiala**

araba álava

 **Ullibarri-Gamboa**  
URTEGIA EMBALSE



ARRATZUA-  
UBARRUNDIA



BARRUNDIA



ELBURGO-  
BURGELU

# URIBARRI GANBOAKO URTEGIA

## Urpeko bailara baten memoria

UNITATE DIDAKTIKOA  
Irakasleentzako materiala

### AURKIBIDEA

	pág.
Sarrera.....	2
Aurrekariak.....	4
Helburuak:	
Kontzeptualak.....	6
Emozionalak.....	6
Jarrerazkoak.....	7
Metodologia.....	8
Baliabide didaktikoak.....	9
Jarduerak.....	10
Estekak.....	12
Bibliografia.....	13

#### Edizioa:

Arabako Foru Aldundia

#### Testuak:

Fernando Sánchez Aranaz

#### Diseinua eta maketazioa:

Orbela S. L.

#### Argazkiak eta dokumentuak:

Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegia (Azala, 5), Fernando Sánchez Aranaz (3), Orbela S. L. (Azala), Pixabay (Atzealdea), Revista de Obras Públicas N° 2.802. 1948 (5).



## SARRERA

Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegiak 1958. urteko abuztuan inauguratu ziren. Obra handia izan zen, hasiera batean Bilboko Labe Garaiei energia elektrikoa hornitzeko sortutakoa.

Baina urtegi urpean Ganboako antzinako bailarako herri gehienak geratu ziren. Hango bizilagunek agur egin behar izan zieten beren ondasunei eta bizimoduari, eta auzoko herrietara emigratu behar izan zuten.

Unitate didaktiko honen xedea Ganboako bailarako memoria historikoa aztertzea da, bailarako auzokoen isiltasuna apurtuz, eta oraintsu arte liburuetan zegoen HISTORIA osatuz. Horrela, helburua da DBHko ikasleek bailarako bizilagunek "ondasun handiago batengatik" egin behar izan zuten sakrifizioaren inguruan gogoeta egin dezatela.



Ugalde familia. Orenin



Martínez de Lizarduy familia. Mendixur



Ugalde familia. Orenin



Eraña familia. Garaio




## AURREKARIAK

Urpeko bailara baten memoria" izeneko unitate didaktikoan Ganboako bailararen hastapenak, kokapen geografikoa, osatzen zuten herrien banaketa eta Araba auzoko probintziekin komunikatzeko kokapen estrategikoaren garrantzia deskribatzeaz gain, haren landa izaera adierazten da, urtegia eraiki aurretik. Helburua da jadanik ez dagoen ondare baten berri ematea ikasleei, nahiz eta desagertuta egon, garrantzitsua delako.

Urtegia eraiki zuten garaian egoera eta ekonomia nolakoak ziren azaltzen da, eta elektrizitatea eta ura hornitzeko egin behar izan zutela arrazoitu. Gaur egun, ezinbestekoa dela ere esaten da, gure bizimodua asetzeko. Urtegi artifizial hori aldatu da, eta ingurune natural bihurtu da. Ez du aisialdirako eta entretenimendurako bakarrik balio; balio ekologiko handiko toki ere bihurtu da.

Urtegia nola eraiki zuten azaltzen digu, baina orain arte aipatutako ontasun guztiekin aurre egiteko, atzera begirako ikuspegia egiten du. Horrela, urpean geratu ziren herrietako auzokoen azalean jartzen gaitu. Haien ondarea eta bizimodua erakusten dizkigu, eta dena nahitaez utzi behar izan zutela gogoratzen digu, auzoko udalerrietara emigratzeko eta beste bizitza bat hasteko. Gizakiaren ikuspegi horretan, hain zuzen, jarri nahi da arreta unitate didaktiko honetan.

Instalazioen eskema orokorra



ATHA- GUEREÑU-1937



## HELBURUAK

### KONTZEPTUALAK:

- Ganboako bailararen historia ezagutzea: geografia, historia, herriak, toponimia, bizilagunak, bizimoduak.
- Ura eta energia gisako baliabideen beharrari buruz ikastea.
- Urtegiaren beharra ulertzen laguntzea, eta gaur egun dituen erabilerei buruz ikastea, hala nola ura eta energia hornitzeko, aisialdirako eta garrantzi ekologiko handiko eremu gisa.
- Gizakiak ingurune naturalean egindako ekintzak eta haien ondorioak aztertzea.
- Duela 50 urteko eta gaur egungo bizimoduak bereiztea.
- Desagertutako herrien memoria nabarmentzea.
- Ikasleei gaur egungo gaia hurbiltzea, hala nola migrazioak eta desjabetzeak.
- Artea, ideiak igortzeko baliabide gisa.

### EMOZIONALAK:

- Iritziak sorraraztea.
- Sentimendu positiboak/negatiboak indartzea.
- Talde bateko kide izatearen sentimendua igortzea.

### JARRERAZKOAK:


- Herrien nortasunaren eta haien kulturaren balioa ulertzea.
- Ondarea baloratzen eta errespetatzen ikastea, haren aurrean sentikor agertzea eta zaintzen parte hartzea. Garapenaren eta globalizazioaren aldeko eta kontrako arrazoiak ulertzen laguntzea.
- Ezagutzak inguratzen gaituena baloratzeko eta zaintzeko balio duela igortzea.
- Artea pertsonengana heltzeko eta pentsarazteko baliabide gisa hartzea.
- Jarrera kritikoa eta gogoeta sustatzea.
- Gatazkak konpontzeko tresnak ematea.
- Enpatia besteren egoerekin sustatzea.
- Solidaritate eta justizia sentimenduak piztea.
- Pertsonen interes eta ideologia desberdinak errespetatzen eta elkarrekin bizitzen ikastea.
- Motibazioa eta inplikazioa sustatzea lan egitean, jarduera dinamikoen bidez, ikasleek haiekin bat egin dezaten.
- Bizitzeko era aktibo eta osasungarria bultzatzea.
- Partaidetza eta talde lana sustatzea.



## METODOLOGIA

Unitate didaktiko hau egiteko, "Landa koaderno" batetik abiatuko gara, euskarri digitalean edo paperean. Hor, zenbait jarduera proposatzen dira. Batzuk, banaka egiteko dira, hala nola informazioa bilatzea edo bideoak ikustea; beste batzuk, taldeka egiteko; esaterako, bateratze-lana edo eztabaida. Interneterako sarbidea izan behar dugu proposatzen diren galderetako batzuei erantzun ahal izateko.








Horrez gain, landa bisita bat proposatzen da Uribarri Ganboa urtegiara, unitate didaktikoan igorri nahi den errealitatea zuzenean ezagutzeko eta errazago ulertzeko.



## BALIABIDE DIDAKTIKOAK

"Urpeko bailara baten memoria" unitate didaktikoaren landa koadernoak.

Interneterako sarbidea.

-  Arabako Foru Aldundiaren web-orriko Uribarri Ganboa urtegiari buruzko informazioa.
-  Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren web-orriko Natura 2000 Sareari buruzko informazioa.
-  Uraren Euskal Agentziaren web-orriaren infografia Zadorrako Urtegi Sistemari buruz.
- Informazio panelak Ganboako bailarako memoria historikoari buruz, urtegia inguratzen duen ibilbidean kokatutakoak.
-  Gasteizko Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoaren katalogo digitala, Arabako Foru Aldundiaren web-orriaren eskuragarri.
-  GeoEuskadi webaren ortoargazkien konparatzailea, Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura (DEA).
-  EITBk argitaratutako bideoa: "Uribarri Ganboa eraikitze ur azpian utzitako herrien memoria berreskuratu nahian", bailarako auzokoen lekukotasunei buruzkoa.
-  "Bajo el agua" performancea, Zas Kultur elkarteak komisario izandako Nerea Lekuonarena, Arabako kulturaren plan estrategikoaren "Ekinean ibiltari" deialdiaren barruan.

## JARDUERAK

- Bizipen pertsonalak eta ezagutzak trukatzea, migrazioen eta desjabetzen gaian.
- Ganboako bailarako herrien antzinako argazkiak bilatzea Interneten, eta duela 50 urtetatik gure ohitura eta bizimoduetan gertatutako aldaketei buruzko azterketa.
- Norberak egunero izandako ur-kontsumoaren kalkulua, eta kontsumo iraunkorraren garrantziaren balorazioa, ura aurrezteko ideiak emanez.
- Uribarri Ganboako urtegia gaur egun ezagutzea, eta Natura 2000 Sarearen barruan duen garrantzi ekologikoaz ohartzea.
- Zadorrako urtegi sistemaren infografia bistaratzea, haren erabilerak ezagutzeko.
- Urtegirako bisita, Ganboako Bailararen Memoria Historikoaren informazio-panelen bidez, urtegia inguratzen duen ibilbidean kokatutakoak.
- Elizbarrutiko arte sakratuaren museoaren katalogoa kontsultatzea, urtegia urez bete ondoren salbatu ziren hondarrak ezagutzeko.

- Urtegia eraiki aurretik zeuden herriak zehazki non kokatuta zeuden jakitea, zenbait urtetako airetiko argazkiak konparatzen dituen tresna interaktiboaren bidez.
- Ganboako bailarako zenbait auzokoren lekukotasunak entzutea, urtegiaren eraikitzea eta desjabetzeak egin ziren moduari buruzko gogoeta.
- "Bajo el agua" performancea ikustea. Hor, Leire Lekuonak Ganboako bailarako biztanleen historiaren berri ematen ditu, modu hunkigarrian. Atal honetan, egileak helarazi nahi duen mezua identifika dezatela eskatzen da, eta artea, ideiak igortzeko baliabide gisa hartuz, gogoeta egin dezatela.
- Eztabaida bi taldetan. Talde batek, Ganboako bailarako auzokoen alde egingo du; besteak, urtegia eraiki zuten agintarien alde. Urtegia eraikitzearekin zer irabazi eta zer galdu zen argudiatu eta arrazoitu beharko dute, eta gaur egun, nola egin beharko litzatekeen lan hori.



## ESTEKAK

**Uribarri Ganboako urtegia. AFA/DFA:** <https://ullibbarri-gamboa.araba.eus/eu/home>

**Natura 2000 Sarea. Trantsizio ekologikorako Ministerioa:** <https://www.miteco.gob.es/eu/biodiversidad/temas/espacios-protegidos/red-natura-2000/default.aspx>

**Zadorrako urtegi sistemaren inguruko infografia. Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua.** <https://www.youtube.com/watch?v=uUmXghgTyOE>

**Elizabarrutiko Arte Sakratuaren Museoaren katalogoa. Vitoria-Gasteiz. AFA / DFA:** <https://apps.euskadi.eus/emsime/bilduma-online/elizabarrutiko-arte-sakratuaren-museoa/museo-16>

**Ortoargazkien konparatzailea. geoEuskadi:** <https://www.geo.euskadi.eus/informazioa/ortoargazkien-konparatzailea/s69-geocont/eu/>

**Uribarri Ganboa eraikitze ur azpian utzitako herrien memoria berreskuratu nahian (bideoa). EITB:** <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/bideoak/osoak/6223719/uribbarri-ganboa-eraikitze-ur-utzitako-herrien-memoria-berreskuratzen/>

**Bajo el agua (bideoa). Nerea Lekuona:** <http://www.nerealekuona.com/?p=1574>

## BIBLIOGRAFIA

BILBAO, TXUS (2008): **A cincuenta años... Berrogeita hamar urtera.** Vitoria-Gasteiz. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, AMVISA, URA-Ur Agentzia.

PEÑAS SANCHEZ, VICTOR (2005): **El paisaje fluvial del Zadorra.** Vitoria-Gasteiz. Arabako Foru Aldundia.

VELEZ DE MENDIZABAL, JOSE MARI (2005): **Ullibarri Ganboa.** Vitoria-Gasteiz. Arabako Foru Aldundia.